

## EDALONTZI BERRERABILGARRIA

### HELBURUAK:

- Erabilera bakarreko edalontziak erabiltzetik sortzen den hondakin kantitatea gutxitu.
- Hondakinen berrerabiltzea eta gutxitzea sustatu, festara azaltzen dena sentsibilizatuz.
- Herriko eta inguruko beste ekintzetarako erreferente izan.

### ONURAK:

- Baliabide aurrezpena.
- Kale garbiketan aurrezpena.
- Festan parte hartzen dutenen heziketa eta sentsibilizazioa.

### Aurretikako azalpenak

Festen gainerako informazioa argitaratzen denean, egitarauetan, karteletan edota ekintzetarako txarteletan edalontzi berrerabilgarriari buruz aipamena egingo da, jasangarritasunaren elementu adierazgarri gisa. Festaren antolakuntzan parte hartzen duten guztiek ere edalontziari buruzko informazioa eskuragarri izango dute.

Txosna batzordean edalontzien arduraduna izendatuko da. Haren ardura izango da txosna eremuko ikuskaritza edalontzietan dagokienean: festek irauten duten bitartean edalontzietan buruzko edozer berari komunikatu beharko zaio.

Udalak edalontzien arduraduna izendatuta izango du. Arduradun honen telefonoa txosna batzordeko edalontzien arduradunak bakarrik izango du.

Beste edozein ekitaldi edo ekimenetarako edalontzi berrerabilgarrien eskaera kultur etxean egin beharko da udal arduradunarekin harremanetan jarriaz. Eskatzaileak arduradun bat izendatuko du eskaera orria betetzerakoan.

### Festan zehar azalpenak

Edalontzi berrerabilgarriari buruzko azalpenak eskuragarri izan beharko dute festa egunetan. Bere erabileraren onurak azalduko dira txosna eremuan jarritako kartel eta pankartetan, baita festetako egitarauaren aurkezpenaren ere. Festetan zehar posible diren ahalbide guztiak erabili beharko dira informazioa emateko (megafonia bidez txosna eremuan, eskenatoki gainera kontzertuak aprobetxatuz, etab.). Informaziorako eta errenta/itzulpenerako bereziki prestatutako edalontzien txokoak agerian egongo dira. Errentaren zenbatekoak, edalontziarekin zer egin, etab. ongi azalduta egongo dira horretarako prestatutako karteletan.

### Festa ondorengoko azalpenak

Festen ondorengo balorazio bileran edalontzien erabilerari buruzko balorazioa ere egingo da. Urtez urteko esperientziaren emaitzak argitaratu daitezke. Emaitzak azaltzeko bide bat, ondorengo hauek neurtzea litzateke:

- (Hondakinen gutxitzea x zerbitzatutako edari kopurua)/erabilera bakarreko edalontzien pisua.
- Balantze ekologikoa: jasotzen den zaborra kg- tan neurtuz berrerabilgarriekin/plastikozkoekin.
- Balantze ekonomikoa: erosketako gastua+ bueltatu ez diren edalontzien kostua- errentan errekuperatutakoa

### EDALONTZIAREN ERRENTAREN ANTOLAKUNTZA:

Edalontzi berrerabilgarriaren erabilera zuzena bermatzeko eta bere itzulera bultzatzeko beste ekintzetan erabiltzeko aukera izan dadin biderik egokiena "pilaketa sistema" da. Hau da, erabiltzaileak edalontzi bat jasoko du diru kantitate baten truke edari bat hartzen duen lehenengo

aldian. Nahi adina aldiz erabil dezake eta bukaeran, edalontzia itzultzerakoan, fidantzan utzitako diru kantitate osoa jasotzen du.

Gaizki-ulertzeak ez izateko modurik egokiena oinarrizko araudi bat ezartzea da. (I. eranskina

### **Edalontziaren errenta**

Festaren antolakuntzaren arabera, leku hauetan egin ahal izango da:

1.- Txosna eremuan

- Edaria zerbitzatzen den lekuan.
- Edarien txartelak erosten diren lekuan.
- Edalontziaren errentarentzako eta itzulpenarentzako egokitutako lekuan.

2.- Kultur etxean, eskabide orria bete ( II. Eranskina) eta fidantza ordainduta. Araudia emango zaio eskatzaileari (I. Eranskina)

### **Errentaren balioa**

1.- Txosna eremuan edalontziaren errenta €1 kobratuko da (ez oso garestia edarien prezio arruntekin alderatuz eta ez oso merkea, jendeak edalontzia bueltan ekar dezan).

2.- Kultur etxean eskabide orria bete ondoren fidantza ordainduko da. Honela edalontzia bueltan jasotzeko probabilitatea handituko da. (ikus azalpena I. eranskinean).

### **Edalontzien itzulpena**

1.- Txosna eremuan: barran edo honetarako egokitutako leku berezian egingo da.

- Itzulpenaren azkartasuna bermatuko da; honetarako behar ezkeru leku gehiago jarriko dira txosna eremuan edo festa eremuan.
- Festak amaituta edalontzien biltegiara itzuliko dira udaleko arduradunarekin hitzordua egin ondoren.

2.- Eskatutako edalontziak bueltatzeko hitzordua egingo da udaleko arduradunarekin eta edalontzien biltegiara eramango ditu eskatzaileak.

### **Biltegia**

Edalontzien biltegia urtean zehar plazako biltegia izango da (elizako aldapa azpian). Festa egunetan, biltegiak dituen erabilera eta erabiltzaileak haunditzen direlako, edalontziak biltegitik atera eta udaletxeko beheko solairuan gordeko dira. Era honetara edalontzien mugimenduak udal arduradunak bakarrik egin ahal izango ditu, txosnetako edalontzien arduradunak eguneroko beharren balorazioa egin ondoren esaten dionaren arabera. Bi arduradunek festetan zehar biltegitik atera eta sartzen diren edalontzi kopuruaren kontaketa zehatza egingo dute.

Urtean zehar udaleko arduraduna izango da biltegitik atera eta sartzen diren edalontzien kontaketa zehatza egingo duena.

### **Garbiketa**

Edalontzien garbiketak egokia izan behar du. Biltegian dauden edalontziak garbituta egongo dira beti.

1.- Txosna eremuko garbiketa: ontzi garbigailu bidez egingo da (errentan hartuko du udalak). Biltegiara eramango dira eta udaleko arduradunak garbitu eta lehortzera bidaliko ditu festen amaieran.

2.- Eskaera orria beteta hartutako edontzien kasuan, eskatzailearen ardura izango da ontziak garbitu eta lehortzea. Biltegiara eraman aurretik udaleko arduradunak ikuskaritza lana egingo du eta garbituta ez dagoen ontzirik aurkitu ezkeru eskatzailearen ardura izango da edalontzi horiek berriz garbitu eta lehortzea.

## **Kontaketa**

Kontaketa bi aldiz egingo da:

- \* festen aurretik (45egun, eskaera egiteko) eta
- \* festen ondoren (7 egun batz bestekoak izateko).

Kontaketarako eredu bat erabiliko da beti berdinean egin dadin. Udaleko arduradunak diseinatutako orria izango da. Kontaketa ondoren beharrezkoa ikusten bada erosketarako proposamena egingo dio udaleko obra eta zerbitzuetako arduradunari.

1.- Txosna batzordeko edalontzien arduradunak festa egunetan egunerokoa beteko du Txosnan utziko diren "Edalontzien eguneroko diagnostikoa" dokumentuan (ikus III. eranskina). Biltegitik hartutako edalontziak ere dokumentuan apuntatuko ditu.

2.- Beste edozein ekitaldi-ekimenetan eskatutako edalontziak udaleko arduradunak kontaktatu ditu. Fidantza bueltatuko du adostutako kopuruan bueltatzen baditu eta kobratuko zaio edalontziak falta badira (ikus II. Eranskina)

## **Bestelakoak: erosketa, logoak....**

- Edalontziaren diseinurako hobe litzateke esaldi orokor bat erabiltzea, hurrengo ekintzaren batean berrerabili ahal izateko.
- Ahal izanez gero, babesle edo laguntzaileak bilatu, beraien logoa edalontzian ipiniz, diru iturri bat lortzeko.
- Oso garrantzitsua da araudi bat ezartzea eta langile guztiak ondo ezagutzea. Ahal izanez gero, informazio bilera bat egin beharko litzateke araudia azaltzeko.

## **Arduradunak**

**Garbiketa: Obra eta Zerbitzuak**

**Erosketa: Obra eta Zerbitzuak**

**Kontaketa: udaleko arduraduna (Imanol Urkizu)**

**Errenta eta itzulketa: udaleko arduraduna (Imanol Urkizu)**

### **EDALONTZI BERRERABILGARIAREN ERABILERARAKO ARAUDI PROPOSAMENA**

1. Edalontziak €1-eko errenta izango du, edariaren prezio intrintsekuari gehitu beharko zaiona lehengo hartualdian.
2. Txosnetako barran ere edalontzi zikina garbi batengatik alda daiteke.
3. Erabiltzaileak edalontzia itzulpen lekura itzul dezake eta orduan errentaren diru kopurua itzuliko zaio. Nahi denean, edalontzi zikina beste garbi batengatik alda daiteke, musutruk.
4. Edalontziak itzul ahal izateko egoera onean egon beharko dute, ez dira onartuko edalontzi hautsiak edo izorratuak.

### **FIDANTZARAKO PROPOSAMENA**

1. Edalontziak eskatzerakoan fidantza bat eskatuko zaio eskatzaileari, eskatutako edalontzi kopuruaren arabera. Fidantza edalontziko 0.15€-koa izango. Adibidez 200 edalontzi eskatuz gero 30 €.
2. Eskaera, talde edo norbanakoaren datuak eta emailearenak erregistratu egingo dira.
3. Edalontziak garbiak, lehorrak eta hamabost eguneko denboran bueltatu beharko dira. Horrela ez bada ez da fidantzarik itzuliko.
4. Jasotako edalontzi kopurua utzitakoa baino %90 baino gutxiago denean ez da fidantza osoa bueltan emango. Kopuru horretatik aurrera falta diren edalontzi bakoitzeko edalontziaren balioa deskontatuko da (normalak = 0.33 €; katxiak= 0.43 €)  
Adibidez: 200 edalontzi txiki utzi eta 45 falta badira, 25 edalontziren balioa deskontatuko da fidantzatik. Fidantza 30 €-koa izanik  $0.33 \times 25 = 8.25$  € deskontatuko dira beraz.
5. Jasotako kopuruan %10 baino edalontzi gutxiago falta bada, fidantza oso-osorik bueltatuko da.



<b>ERAKUNDEAREN IZENA</b>	
<b>HELBIDEA</b>	
<b>NA/IFZ</b>	
<b>ERAKUNDEAREN JARDUERA</b>	

<b>IZAERA</b>	<input type="checkbox"/> Erakunde publikoa <input type="checkbox"/> Bizilagunen elkarte <input type="checkbox"/> Irabazi asmorik gabeko elkarte <input type="checkbox"/> Profesionala/enpresa <input type="checkbox"/> Ikastetxea <input type="checkbox"/> Besterik: .....
---------------	---

<b>ESKAERAREN ARDURADUNA</b>	Izena eta abizenak		
	NA		
	Tel. finkoa		Tel. mugikorra
	Faxa		
	E-maila		
	Helbidea		
	Udaleria		

<b>EDALONTZI MOTA</b>	<b>KAÑA</b>	<b>KATXIA</b>
<b>EDALONTZI KOPURUA (JASO)</b>		
<b>EDALONTZI KOPURUA (ITZULI)</b>		
<b>EDALONTZI KOPURUA (FALTA)</b>		
<b>EKITALDI EDO EKIMENA</b>		
<b>ERABILTZeko EGUNAK</b>		

<b>EDALONTZIEN FIDANTZA</b>	
<input type="checkbox"/>	Erakunde eskatzaileak <b>konpromisoa</b> hartzen du ekitaldi horretan berrerabiltzeko edalontziak bakarrik erabiltzeko
<input type="checkbox"/>	Erakunde eskatzaileak <b>ez du konpromisorik</b> hartzen du ekitaldi horretan berrerabiltzeko edalontziak bakarrik erabiltzeko

<b>EDALONTZIAK HARTU</b>	
Edalontziak hartzeko eguna:	
Edalontziak hartuko dituen pertsona:	Tel.:

<b>EDALONTZIAK ITZULI</b>	
Edalontziak itzultzeko eguna:	
Edalontziak itzuliko dituen pertsona:	Tel.:



# EDALONTZIEN EGUNEROKO DIAGNOSIA

ARDURADUNAREN IZEN ABIZENAK:

EGUNA:

## Jaso duzun edalontzi kopurua

Sagardo basoak:

Katxi basoak:

Bestelakoak:

## Biltegitik hartu duzun kaxa kopurua

\* Kaxa irekita badago zenbat edalontzi hartu dituzun apuntatu

Sagardo basoa:

Katxi basoak:

Bestelakoak:

## Uzten duzun edalontzi kopurua

\* Kaxa kopurua jarri (osoa/itxita uzten baduzu) edo edalontzi kopurua jarri (irekia uzten baduzu)

Sagardo basoak:

Katxi basoak:

Bestelakoak:

## Kaxa itxietan dauden edalontzi kopurua

Sagardo basoak: edalontzi/kaxako

Katxi basoak: /kaxako

Harremanetarako

telefonoa: